AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5997

272/2011 EBAZPENA, azaroaren 14koa, Bilboko Osasun Eskualdeko zuzendari gerentearena, Bizkaiko Osasun Barrutian, Bilboko Eskualdean, San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak Jesús Fernández de Mendiola Espinori esleitzeko dena.

Bilboko Osasun Eskualdeko gerentearen uztailaren 15eko 172/2011 Ebazpenaren bidez, San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburua izendatzeko deialdi publikoa onartu zen.

Deialdiaren 5. oinarrian ezarritakoari jarraituz, epaimahaiak destinoak esleitzeko proposamena bidali dio Eskualdeko zuzendari kudeatzaileari, gerenteak ebazpen lotesle baten bidez onar dezan.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuaz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bizkaiko Osasun-barrutiko Bilboko Eskualdeko San Adrián-Zabalako Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak Jesús Fernández de Mendiola Espino jaunari esleitzea.

Bigarrena.– Jesús Fernández de Mendiola Espino jaunak kudeaketa- eta asistentzia-lanak egingo ditu, zuzenean eta hierarkikoki Osasun Eskualdeko gerentearen ardurapean dagoela. Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak betetzen diharduen bitartean, bai eta funtzio horiek amaitzen direnean ere, bere kategorian dagokion plazaren titulartasuna atxikiko du, eta horren oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitateburu funtzioak edo ordainsariak finkatzea, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal izango da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, Jesús Fernández de Mendiola Espino jaunak ardura bereziko osagarria kobratuko du. Osagarri hori 3/1987 Errege Dekretu Legeak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuko da, eta zenbatekoa eta ezaugarriak uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean ezarrita daude.

Bosgarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Deialdiaren 8. oinarrian ezarritakoari jarraituaz, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2011ko azaroaren 14a.

Bilboko Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.